

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

ABONNEMENTS

Pays Basque.....	4 fr. par an.
France.....	8 fr.
Etranger.....	10 fr.

REDACTION ET ADMINISTRATION

89, Rue Bourneuf — BAYONNE — Téléphone 2.20

L'Administration décline toute responsabilité en ce qui concerne les annonces. Eskualduna ez du on egiten hemen agertu «annonces» direlakoez.

PUBLICITÉ

Chronique locale.....	1 fr. » la ligne
Réclames.....	0 fr. 80 —
Annonces.....	0 fr. 40 —

Les insertions ne sont admises que sous réserves

BERRI ONAK

Gerla berri onak ditugu. — Nondik eta nolaz ? — Hein bat orotarik, lehor eta itsaso; angles eta ruso eta frantses, elgarren hiru lagun erresuma handiak, eskuz-esku, gero-ta ederkio elgar adituz, lagunduz elgar gero-ta azkarkio, etsaiaren garbitzera goazila osoki; lagun ttipiak ere, beljikano eta serbianoak eztaudela ukho, ez alfer; beren ahal guziaz badihardukotela gurekin heiek ere.

Bazterretik daudenak ere, azkarrenaren alde jartzeko padara on baten goait egoki gero-ta aldeago, ditugula, Heterik zonbeit, hala nola Italia, laguntza beharrik gehiago ez dugunean zauzkun othe gutaratu, gaude.

Anhartearen, Frantziak dauka ororen arabera, angesek berek diotenaz, lehen esku-gaina; egundaino ez omen baita soldado frantsesa, bana bertze, hoin gora igan kuraiaz, oldarrez, hatsez, zailtasunez; hotz eta busti, eritasun eta kolpe, guzien jasoiteko iraunkorrako.

Hoik oro hola, oro alferretan bali, eta goren buruan gaitzera bagingazi, arte huntako berri on guziek zer lukete balio? Deus guti.

Irabaztekoan girelako itxurak baitire ordean eta solasak, eta egin-tzak alde orotarik.

Ikusten zaituzte, adichideak, hau irakurtzearekin, elgarri behaka; gal-dekiaz guk aho bero hui : « Ba, ba... bainan noiz da finituko gerla? Bakea egiten, noiz? Hura litake, hura egiazko berri ona, berri guzieta-rik hobereña; funtsa eta, bakar-rik ona, non etzaukun berantegi hel-du, bakearen berria. — Zer bake den heldu, eta nolako. Bake ahul, erro-rik ez iraupenik gabeko batek deus guti lukela balio, emazue otho bu-ruari, eta han azkarki sarthurik a- tchik, ezinbertze hunket dirauon.

Anhartearen, jo muthurrean etsaia, eho arte; dugun guk eta gure haur- rek behingo bakea.

Ehun urtheren bakea ez litake sobera, huntarik lekhor. Berriz has- te ukaitekotz hogoi edo hamar bat urtheren buruan; balitz ere, oraiko hau dugun bezala, herrogoi-ta lauen buruan, alferretan litake Frantzia- rentzat eta hunen lagun erresuma guzientzat orai artinoko indar, odol ichurtz, zorigaitz eta bihotzmin guziak.

Egun guzieta-rik solasa baitugu, eztefala egundaino nehon izan, mun- duaren hastapenetik hunat, holako gerlarik, behar dugu onhartu, bau, ja huntaraz geroz, eta bermatu, ez dadin, gutarik doan lezenbatean, holakorik izan gehiago sekulan.

Ehortzi behar luke oraikotik be- thikotz, ahal baltiz, gerlak; edo bederen behin eta behinkotz.

Nola hel hortara? Bertze biderik ezta, gerlakin tzar nehon eztauzke- neri errainak haustea baizik.

Ordu arte inutil eta erdi litake bakerik aiphatzea.

✕

«Eta holetan beraz berri onak? — Baietz, gizona. Irakur-zkitzue, so- lasaldi huntarik segidan hor, *Berriak egunka*; ea ez direnez, bana bertze, onak, geroago eta hobek?..

Irakur gero aitzina lerroan, ira- kur bereziki artharekin, ez ithoka, presan; irakur aizinaz, arraposki, ja- kituz, *Gerlarien Berriak*; aste gu- ziez hain chuchen, hain cheheki, hain eskuara garbiz, gure berrikari biphil, jarraikiak igortzen dauzku- nak.

Hain chuchen egun hautan itzal- tzeokotan izanik zonbeit asterentzat, ustez eta etzen haizuko izkiriatzet- pat, egundaino bezen atzar dugu eta erne. Lanari ez lotsa, gure laguntzako eta *Eskualdun*-aren irakurtzalen ar- gitzeko.

Azken bizpihiru aste hautan be-

zen ongi hatzemanak gatz biperre- tan othe daukun behinere berririk igorri, gaude.

Zer ihizia! Bekhatu zen hau sol- dadoeri gerlarat ez jarraitzeko.

Hunat guri hoinbertze berri, hoin bihotz aitchagarriren heltzalea ez ahal baitago han ere, gerla tokian, lo.

Badugu holakoen beharra; are beharrago Gaiueko Haren. Hel be- kigu bururaino. Egun hautako berri onen araberrako doazkigula heme- dik haratekoak, bitoria osqa irabazi arte.

Berriak egunka

Astelehen, marchoarean 10ean

Lehorrez ala itsasoz, azkarki dera- magu gerla.

Angles armada gure artilleriak lagun- tzen duela, nausitzen zaio etsaiari *la Lys* uraren eta *la Bassée* kanalaren artean.

Champagne aitzinatuz goazi.

Itsasoan hiru unti angles urerat uz- kaitzen ditu etsaiak; ordainez *«us- marins»* direlakoetarik bat suntsitzen diote berri anglesek.

Rusoen untzek zafrazten dituzte *Itsas Beltzeko* bazterrak. Bana bertze gure etsaia nausi... gaitzez.

Orizegun, 11an

Champañen bethi guk gaina.

Beljikan, angles untziak ur hegiz az- kar; etsaia biribil.

Turkoek beren hiri nausia *Constanti- nople*, baitzepadara beiratu nahiz eztaite zer egin. Ez dute iharduk ahal.

Polon a iphar aldean al manek zazpi ahalak eginik, eztezakete nehorat aitzina.

Orizirale, 12an

Anglesek *N uve-Chapelle* deithu tokian, guk *Champañen* arroil-erreka berri batzu kentzen diozkagu etsaiari.

Bi soldado aitzindari, *Maunoury* eta *de Villaret*, bi frantses jeneral kolpatuak ditugu; bala beraz omen biak.

Maunoury delakoari begi bat erema- dio tiroak eta matrail hezur bat hautsi.

Bertzeak buruan du kolpea.

Guillaume Emperadoreak bere jenera- letarik hiru gabetzen ditu beren karguaz, baizik eta ez diotela etsaiari behar bezala ihardoki.

Otrichia-Hongrian gosetea.

Larumbat 13an

Beljikanok *Yser* uraren hegian har- tzen dute gain pozi bat; bezperan hartua ere ba finkatzen.

Anglesek bide batzu beretzen dituzte, hala nola *rue d'Enfer* deithu bat.

Milako bat gizon preso hartzen ere ba. Alemaneri hartu diotegu mitrailuis an- dana bat. Aitzinekoen gainera, 150 pre- suner.

Igande, 14an

Orotan azkartuz goazi.

Beljikan eta angles, elgar lagunduz, nausitu zaizkote alemaneri. Hamaka ehun presuner.

Hiru egunez etsaiak hamar mila gizon galdu dituela daukate. Hil hanitz.

Deus onik eginetzko erabian, soldado- rik gabeko hirier dire aihar.

Rusok urhats bat ez dute gehiago al- fer egiten. Zer nahi aleman preso hartzen; hiltzen hanitz; tokirik hobereenez jabe- tzen.

Itsas-untzi zonbeit bethi jauz-arazten ditu etsaiak, bainan hek gizonatu ditu az- ken konduen egunean izanien pagatzeko.

Turkoak beheara dire biziki.

Guillaume Otrichia-ko Emperadoreari bakerik ez dio, lur pozi bat eman dezan Italiari, balakatzeko. Beretik baino na- haigo eman bertzerenetik. Makhur dire hortaz.

Astelehen 15ean

Anglesek Beljikan etsaiari utzi behar ukan diote lur pozi bat, indar handitan jazarri zaiotetako; bainan gero berriz huts-arazi diote parte bat.

Argon-en guri zaizku oldartu itsuski; bainan hartua dugu ez ukho egitea; ez izitza etsai marroaren koskaldiek. Haren ara orok hartzearekin, debruen lanetan izanena da, oraikoaren gainera.

Asteart, 16an

Turkoek etsituea dute beren hiri nausia *Constantinople* begiratzeaz.

Serbianoak ez dire uko egitekotan.

Kitchener angles gerlako ministroak

Herrilalde guztetan toki onak badira;
Bainan bihotzak dio: zoz Eskual-Herrira

OROTARIK

Haurridetzeko

Adiskide batek bidali dauku :

« — Ezagutzen dukezu engoitik Lurde. Han izan zirelarik oharitu zitazke, hiri-aren erditsutan, mendiska baten gainean chutik dagon jauregi zahar beltz bati. Frantsesek erraiten ohi dakote : « le fort de Lourdes ».

« Adizazu beraz : gatzelu hortan badi- rela hetsiak ehun bat soldado, Alsace-Lorrainako um. Gure kontra alema- nin guduka arizantik Beljikan, ba eta gure lehorrean beran, guk preso hartuak.

« Oro, edo bederen gehientsuak, fran- tses um. Gure odol herekoak; hirueta- hogoi ta hamarrekotz gerlan, bakarrik, ale- manen atzaparretatik erori izanak, ezin bertze. Ezinbertze ere, beren nausi tzarren eskupetik ezin atheraz, guri bu- ruz tiroka arizanak gerla huntan.

« Begitarte oneko mutiko batzu, ge- hienak. Izenez, frantsesak; gure mintzai- za ez oraino arrunt ahanziak bakar batzu, nahiz alemanen hizkuntzan hanitzez tre- beago. Alsace-Lorrainako eskualdean di- tugun adiskideak arthandamentu zauz- kiguten, othoi urrikal ginitzaizkoten.

« Urrikaldu gitzeie bada, bihotza hau- tsirik. Berech ezarri ditugu, delako gaz- teluan, behinik behin; aleman eta pru- sian garbiak bertze atherbe batzuetan zaintzerat igortzen ginituela. Jan hobe- chagoa eman diotegu. Musikako tresna batzu ere ba utzi, beren artean josta ziten; ezen, alemanek erakutsirik beren eskoletan, musikari hautak badira zon- bait. Jaunztura bat ere eman diegu berezia, eta kasik aipaina : kapote luze beltz bat, eta chano urdin ihun bat hiru chingolekin, gorri, churi, urdin arin, Frantziako bandera bezala.

« Kontent bizi ginen, hek gure ikusta- teaz, gu gure lanaz, noiz eta ere bazterre- ke egun batez arrunt nahaster baitira. Huna nola. Bi asteren ingurua du gertathurik.

« Baginien Lurdeko ospitale batean « Jean » deithu aitzindari bat, eitisu- nez gerla tokitik jina. Atirikako soldado multzo batkin Frantziaren alde gerlan aitzina. Ez delarik bizkitartean arras frantsesa, baizik « Alsace-Lorrainakoa » hura ere.

« Bethi danik haatik bere sor-lekuan Frantziari azkarki atchiki dion gizona. Gaztean, imprimatzalea zen ofizioz. Ale- manak ez zitazken jasan. Nausi dōpe boien kontra bere herritarak argitzen zituen, elgarretarat biltzen, mihiz ala jumaz sututzen. Frantziaren haur iduki- tza gatik. Etzen urrats ez solasik, hort- ako sobera zitzakonik.

« Azkenean, utzia zuen duela zonbait urthe bere herrilalde, arrunt frantses jar- tze, eta soldado frantses; soldado chu- metik, ernea zelakotz eta khartsua, laster aitzindari baitzen igan.

« Bazakiten, ha, alemanek haren egin- tzaren berri. Mendekioz, gerla hunen has- tetik, suntsitua zakoten etchea, bati- tuak ontasunak.

« Beraz, horra nun « Jean » delakoari heldu zakon gogorat : behar duela egin mintzaldi bat bere herritar lagun, aipatu gatzeluan preso zaudeneri. Hiriko kon- seiluari galdetzen du hortako bainena. Kontseiluak baietz : egin dezotela nahi badu mintzaldia herriko-etchean hiri- tar edozonekin orobat ahal dezan gatik.

« Zer chedetarat zuken gogoan mintzal- di hori, zoazi zu. Ehun mutiko gaizo hek hero araztekotean, nik uste; ezartzeko- tan, geroari buruz, ehunak « bat », beren besoez eta bihotzaz Frantziaren alderat betheriko atchikimendu amodiozko ba- tean Entzuletarik presuner heientzat zon- bait seuen ukaita uste zuken ere ber- din.

« Dena den, hedatu zen berria haizea bezala hirian. Ordu beretik ikusi bai- kinen igurikitzen ez ginuena.

« Harritzeko samurrean jartzen zauz- kigu ba ospitaleko, ba kasernetako

soldado guziak. Are kechuago oraino, suminduago, han honenka hirian aloitu eta ospitalean arthatu « beljak » : bu- rutik ba othe zuenez kontseiluak; zenda- ko nahi othe ginituen hainbertze pere- kotu Alsace-Lorrainako aneia ohi arne- gatu hek, ez othe zirenez bada hatze- manik izanak gure kontra harmak es- kuan, eta nolako izigarrikeriak eginik ez, ala Beljikan ala gure ipar aldeko depar- temenduetan! Etzutela heiek, dela fran- tses, dela belj kolpatu izanak, beren odola etsaiarekin borroka ichuri ondoan, utziko bilku hura egin zadin.

« Iralako laidoa zitzeien gatzeluko pre- suneren horrela fagortzea, non hiriko aitzindariak jazartzekotan iduri baitzu- ten, odolak gaiturik.

« Kontseiluak berriz hitz-emana. Min- tzazalea egunaren aiduru. Han ziren lana.

« Beldurturik, eta ikusiz soldado kol- patuen errangurak etzirela arras zuzenik gabeak, kontseiluak azkenean zorionez gibelerat egin du, bainan urrats berri baten hartzeko, hau bederen orok onhar- tzeakoa. Bere burua ez du den gutienik aipatu, baizik bertze alde betetarat itzuli.

« Manatu du « Jean » ofiziera : bere mintzaldia egin dezan, ez herriko-etchean, bainan ba gatzeluan beran, hiriko jaun eta bertze ofizier bakar batzuen aitzie- nan.

« Eta hala egin izan da : harorik gabe, etchekoz etcheko.

« Bainan zer eta nolako mintzaldia! Hitz dautuz badakiela « Jean » delako horrek gizonaren bihotzerateko biderik chuchenena. Hitz dautuz bertzalde, cho- choa ez balin bada, ez dela ere mothela Hain aiphal danik igana izaitoko daukan mailerat, badu gizonak meretzimendu

« Alsace-Lorrainako bere haurrider ai- phatu deie hiruetaun hogoi ta hamarrekotz gerla, eta hunen ondorioz nola erori ziren aleman higuin garriaren menerat; erakutsi deie oraiko gerla itsusi eta basa hunen hastapena, eta nola Beljika gaichoak duen jasan, hobienik gabe, Frantziak baino lehen, etsaiaren oldarra. Galdegin deie nun ziren orduan, hek, frantses umeak.

« Ihardetsi du mutiko gaizoen orde : ale- man aitzindariak batzuek azote eta sabre ukaldika zeramatzela tiroka Fran- tzia beren amari!

« Aditzerekin alemanen armadan ja- san zituztenak, han egun guziez egiten ziren krimak, bihotzak gaitz egin deie; andana bat hipaka hasi dira nigarrez, matheler beheara gogotik erortzen zitzeie- la. Ez ginauden, hek baino gutiago inhar- rosirik, « Jean » bipilaren elbe sarkor- rez.

« Ichil ichila egon ginen oro hulta bat.

« Beharrik berehala, haurridetzeko, manatu zeien « Jean » beren herritar frantses osoki garbiak, kanta zezaten *la Marseillaise*. Orok hasi ginuen bi bulhar- raz Frantziako kantu suharra. Hunki- garri zen eta orozbat bichi, ezen gure bozen artetik ezagun zen deplauki gure haurride berrien hizkuntza, eskualdunen artean ezagun den bezala erdi eskualdun- du kaskoinena.

« *Marseillaise*aren ondokit eman gi- nuen aloski *Sambre-et-Meuse* delakoa. Ai- rea bederen bazakiten gure mutiko gai- zotetan gehienek!

« Azkenik *Jean* ofizierak, bururaino bere sailari nahiz jarraiki, oihu egin-arazi zakoten : *Vive la France!* Oihua ihundu zuten apur bat nigarrek.

« Orhoitzeko egun bat, hots, ororen- tzat ».

Gerlarien berri

Marchoarean San.

Adichideak,

Aspaldiko partez bi lerro. Ez da bethi errech toki hautan, eta gure ofizioan, itchant baten hatzemaitea, izkribatzeko.

Barka beraz.

Iragan larumbatean, itzuli bat egin dut inguruko hiri batetarat, eta han kausitu gure adichide *J. S. P.*, Eskualdunaren berriketari ona.

Ezagun du ez dela oraino bere buruaz etsitua. Ederrik dago. Zokoz zoko zabilan Eskualdunarentzat zerbeit kausitu nahiz. Geroak erakutsiko, ean zer egin duen.

Sudur chorrolcha du.

Aroa hala-hulakoa dugu : ez hain tchar- ra, bainan ez ederrenetarik ere. Lohi hanitz bazteretan. Bidek idortu arte, ez gare naski hemendik mugituko.

Zer nahi artilleria badugu. Bainan de- baldetan gintuzke munduko kanoi guziak, holako bideekin partitu behar baginu.

Denbora edertzearekin haatik zer tar- rapatak! Hemendik Alemani rat jauzi batez joanen dire Frantsesak, etsaien on- dotik, hatsa hartzeko astirik utzi gebe.

Belgikatik Pariseko alderat jautsi gine- lar k nahi baino lasterrago, ez balkinuen to handirik egin, debruek ez badute, Ale- manek ere ondoko egunetan beren hanka handiak zalu erabili beharko dituzte.

Harritzeko da egun hautan zer bakea uzten daukuten!

Noizetik noizcerat kanoi bumbako ikha- ragari bat; egunean bizpahiru. Tiro bat ere ez. Tarbeko errechimendu batek sei egun iragan baititu « tranchetan » badakizu zenbat kolpatu izan dituen? — Bat. Hilik, batere.

Agian ondoko egunetan, hola hola izanen da.

Aintzindariak diote Frantsesek ez du- tela beren indarra hemen eginen; bi he- gaitan direla jokatu. Zenbeitan ara- bera, jada hasiak dire.

Ez dakit zer gertatuko den, Bainan dakidana da, eskualdun soldadoek beren eginbidea eginen dutela. Ah, ikusten bazintu eta entzuten! Zer gizonak!

Funtsean, nola ditake bertze? Fedea badute; Jainkoarekin bakean dire, he- rriotzeak ez ditu lotsaten.

Zer meza bezperak igandetan! Segur hemengo elizek ez dituzte ahanziako Es- kualdun soldadoen « Jainkoaren Ama » eta « *Uhalde baten pare* » ederrak.

Gehiago dena, Eskualdun soldadoeri etzaiote aski igandetan elizarat ibiltzea : astein bi bilkura badituzte arastetan, arrosorioaren emaitako, Sakramendu Sain- duaren benedizioarekin. Ez dea eder?

Eta bertzalde zenbat othoiz ez dute egiten? Ori, huna froga bat, gogotik ka- zetan ezarriko duzun.

Bayonako errechimendua tranchetarat abian zen; orenaren goait. *Durquel* baz- tida arnaren choko batean zagon. Egon eta egon, orena ez heldu. Oharitzen dire belbetan oren erdi bat gozegi prestata direla. « Zer eginen dugu, diote *Durquel*-ek bere laguner? » — « Go- ra gora arrosorioa erranen, dio batek ».

Eta *Durquetek* galde, bertze ihardets, arrosorioa emaiten dute. Eta gero, orena baitzen, joan ziren tranchetarat.

Eta badakizu nork zuen galdutu arrosorioaren hola emaita? *Chiquito* Camboarrak.

Aski egungo, jauna.

Sekulan Jainkoak nahi badu Alema- nian itzuli bat egin dezadan nik ere Es- kualdun soldadoekin, pipa bat ekarriko dautzut orhoitzapentzat.

Egon ongi.

ZERBITZARI.

Huna gure berri heltzale usaikoaren letra egun igurikitzen ez ginuena ; atsegin gehiago baizik ez baitauek egin.

Obrak haste

Marchoan hasi beharrak ginen gaina- ren hartzen. Orai artio atchikirik, gure aldi orai oldarraren hartzeko.

Ea nun diren obrak?

Obrak orotan ageri dire, lurtean eta itsasoan.

Gudu handi bat hasia da, Reims hiritik eskuin, Argonne-ko oihanaren ezkerrean. Egun guziez aintzina goazi, nahiz Ala- manek indar gaitza egiten duten, gure oldarrari ihardokiz azkarki, gizonak ekar- araziz bazter guziatarik. Bainan gure ar- tilleriak lehertzen ditu, gau eta egun ari girelaketz.

Chalons eta *Epernay* hirien gaineko al- dean, gure kanoiak burumbak eskualde guzia inharrosia dauka. Urhartzaz ur- hats goazi bethi aintzina, bethi goiti, lehen lerroak gureturik.

Eskualde hura Frantzia guziko hilsene- tarik da. Lur mehe zuri bat, dena larre idor, chara tchar batzuekin, bortua idu- rikoa.

Han hemenka, elgarretarik urrun, zon- beiet etche bakhar; herri ttipi batzu, zilho batzuetan kukutuak. Kanoiak lanak kalte guti egiten du han gaindi, lurari eta jendeari. Etsaiak bakarrik pekatuko.

Gu bezala, Anglesak ere, Belgika ez- kinan hasiak dire. Lehen jauzian lau ki- lometre irabazi dituzte. Biharamunean Alamanak lothu zaizkote, galdu lurra ber- riz eskuratu nahiz. Bortz mila gizon utzi- rik bidean, joan dire gibelerat, lehortuak.

Itsasoan Turkia-ko hiri nausirat bu- ruz ari gira, itsaso arteka luze batean gaindi. Anglesak eta gu gure unti az- karrenak igorritik. Laster egundun- dugu junta Rusoen untziekin, eta orduan urez- ko eremu guziak gure ditugu, inguru guzian.

Obren ondorioak

Horra obren hastapena.
Zer ondorio dakharkete horiek orok?
Gerokoak gero utzirik, orai beretik ezagun da biharko zer abantailak dituztegun.

Hasteko, Champaña gaineko gudu handi horrek laster urrunduko ditu etsaiak *Reims* eta *Verdun*-eko hirietatik. Hatsu badekugu hor gaindi gerochago; bertalde, burdin bide bat Alamanen aztaparretatik khenduko dugu, gure kanoi handien menen baitago jadanik. Burdin bide horrek emaiten zioten Alamaneri errechetasun handia tresnen eta gizonen erabiltzeko zaltzu.

Jendeketa gaitza badute hor bildua, beldurrez auskian puska eremanen diotegula. Guk hor kitzikatzen ditugun armada hor utzi behar, nahi ala ez, eta bertze tokietarat laguntzarik ezin igor: hortan dire.

Rusoek eta Anglesek eginen dute nahi dutena. Otsa guk muthurretik daukagu. Bigarren gudua, itsasokoa. Turkiarenak laster egin du, hiri nausia guretzon dugunetik. Turkia lehertzearekin, etsai bat gutiago.

Bainan bada hor bertze ondorio handiagorik. Rusiarbidea idekitzen diogu, itsasoz bere ogien atheratzeko, eta nahi duenaren sar arazteko, deskantsuan.

Alamanari aldiz bidea osoki hesten, hor gaindi baituzen oraino idekia, *Asia*-rat buruz. Orain artio ere jatekoa. chuchurtua baituzen, eta hatsa laburtua, oraidanik bertzerik ikusiko du.

Azkenekotz, eskualde hartako populu ttipiak harrituko ditugu, gure indarraren berri emanez, ez bakharrik elhez, bainan obratz.

Orai artio beha baitzauden, nor othe zen nausituko, azkarrenaren alde jartzeko, orai ikusiko dute.

Ja ikusia dute. Alamanek balakatuak zauzkaten oro beren geurrez, elhe zuriz eta mehatchuz. Ez dute zeren pentsa nehor engantuko dutela gehiago; nehor gure kontra guduan altcharaziko: gure untziakoa kanoi handien orroari beharriak idekiz geroz, itsas bazterretako populuak ez ditazke jar gure kontra.

Alde jarriko direnztzikusiko. Funtseano ez dugu batere heien beharrik. Irringarri ginen, garbiki, bethi oihuz, oro jarriko zirela gure alde: *Japonia, Italia, Errumania, Grezia*, eta nik dakita nor oraino?

Ez dugu heien beharrik! Gure alde jartzen balinbadira, berek ikustekoa dute, beren onetan. Bainan erna ditzeela. Bi har berantegi liteke; partimenetan partzuer nahi balinbadire, loth orai beretik. Ez badire lotzen, gure lanetik ez dute zeren gogoan har zerbetien milikatzea. Partzuer gutiago eta hobe guretzat!

Emeki

Gerla huntako lanaz erregura dire han hemenka, emekiagi deramatela gure aintzindariak. Ontsa dohazila, bai, aithortzen dute, obrak ezagun baitire itsuenentzat; bainan luze dela, luze.

Hanitzen ustea zen, hasiz geroz, betan kraskatuko zela; bizpahiru egunez zilhoea eginik, karraskoan Alamanian barna sartuko ginela.

Holakoek ametsetan egiten dute gerla. Soldadoak bozkariotan direlarik ikusiz oraiko goiti beheitiak, har dezatela bederen pazientzia.

Emeki goazila, segur, bainan bethi bagoazi. Zuhurtziak irabaziko du gerla. Erhokeriak gal lekaze.

Alamanek egiten dituzte zazpi ahalak, beren erreketan egon beharrez, bazter guziak gerizaturik, izigarriko tresneriaren jabe dira; gizonak oraino azkarki jokatzen dira, ezin bertze gorrian bakharrik amor egiten dute; galdur lurrea berehala beretu beharrez bermatzen dira gisa guzietarat, gau ala egun: eta halarik ere aintzina goazil.

Aintzina goazi, lehen lerroak direlarik gaichtoenak, lurrea ez delarik oraino chukol! Zer nabuzue gehiago!

Bethi aintzina!

Bi hitz hoik gogoan barna sar-araz ditzaun. Emeki balimbada emeki, gauza segura da bethi gaina hartzen dugula egun guziez, numbeik bederen, gibelat ez dugula egiten urhaisik gehiago. Gibelat egin dugunean, erran dugu lanoki, garbiki.

Orai, den gutieneko lur puska galdur orduko, jautzan berriz hartzen dugu. Galtzea ez zauku gerthatzen gehiago.

Horra gerla hunen gakhoea. Hortan da ezagun norat ari den.

Pilota partida batean, demora luzaz partida dilingo egon delarik, ados, Jinkoak beira batek gaina har dezan, bet betan, eta atchik. Bertzeari zainak ahulzen zaizko, bihotza tipitzen: hartaraz geroz lehertua da, gero ta lasterrago.

Holakotsu zerbeit ikusiko dugu. Gerla baten gora behera guzia armetan dago, eta gizonen bihotzetan.

Armez ez dugu zorrik Alamaneri, hemendik goiti. Ez baduzue sinhesten, egizue itzuli bat hemen gaindi, bi beharriak idekirik.

Kanoiak orroaz hasten direlarik, nork othe du gaina hartzen, nork irauten gehienik? Bethi guk.

Bertalde, gure soldadoen bihotzak ez dire egundaino hoin bero izan. Negu bihotzean ez ginuen segur holako fidantzia osoa. Orhoitzen niz aldi bat edo bertze halako lazadura bat jasanik, nik eta bertze, Alamanek oldarrean zerbeit irabazten zutelarik.

Orai zer othe dute sendi Alamanek? Ikusiz nahi ala ez gibelat egin behar dutela, ez behin, bainan bethi; entsegu guziak debaldetan eginik, erreka beheiti abiatuak direla!

Gerla tokian, martchoaren 14an.

J. S. P.

GERLARIAK AITZINA

Bakerik eman gabe nehon etsaiari, Orain zauzku gureak zinez sutan ari. Fida dire bertalde nausien hitzari; Nun litazke hobeak hartzeko gidari?

Segurantzian ezarrit hartu den arteka, Aitzina badoazi, errekaraz erreka. Bichtakoak lurrerat, hartuak esteka, Nehon ezin sosega, dabilta jauzteka.

Ziminoak bezala, nun nahi sarthuak; Gathu zaharren pare, ezin lehertuak. Etsaiak han hemenka dituzte hartuak, Norapait her ditela urguluz hantuaiki!

Herrestan ala jauziz, manatu bezala, Erran tokira chuchen jo dute gisala. Barneko bero batek doblatuz ahal, Erran zinio tropa phestarat doala.

Jo, jo, emazue hor, putiko zankarrak, Chehakatzu aleman hastial ozarrak! Oraikotik sobera betherik pegarrak. Beharko tuzte gal'dubethikotz indarrak.

Guduan ari zaren herritar maitea, Noizko ditake zure hemen ikhustea? Bego jin dadin, bego udaren hastesa, Ez da luzaz hoi azkarn izanen gatea.

ndre Dena Maria, birjinen birjina, Her duzu sahetsean, laguntzerat jina; Bihotza su garretan-zuretzat egina, Ezti dezan ahalaz zu baithan den mina.

Bertaldean oraino Joana, dohatsua Izendatzeak berak pizten baitu sua. Horrek beharrez argi lekaze itsua. Urruntzeko gutarik aleman satsua.

Oraitik gurekin da gerlako Jainkoa, Frantzia baita haren nahikaragoa; Beha zozue horrat zoin den begikoa. Othoitzak eman dio zeruko gakoa.

ZER ETA ZER

ZONBAT HAURRIDE

Iragan larumbatean, Cambotik Baionarateko burdin-bidean baginen elgarrekin soldado bat eta bi sarjant eskualdun; hetarik baten aita; bertze aita bat, hiru seme gerlan dituen; eta ni, lau iloba soldadoren, osaba, Itsasu, Cambo, Hazparne, Ustaritze, arte hortakoak oro.

Solasetik solasera, mintzo gira zoinke gure toketan ditugun edo dazkigun haurridetu etchez; zoinke gehiago athera seme-alaba, bakkotchak bere etchean, edo auzoan, edo berrian.

Sarjantetarik batek dio: « Gu bagira bederatzi haurride ». Bertzeak: « Gu hamaka ancia-arreba. — Gu hamabi ancia-arreba. — Gu hamabi ancia ».

Soldado choilaren aitaik dio, badituela zortzi seme. — « Nik ez oraino hanbertze, dio bertze gizon batek, solasean sarthurik; bainan ez dut nere azken hitza oraino errana. Baginen gu, ni neure haurridekin, *hamazazpi*; bi neskatzoki eta *hamabortz* muthiko; aita beraren, bi amen haurrak ».

Elgarri beha ginaudalarik, oro irriz, holako haurride andanen berri ginakienak hanche bilduko gerthatzea gehiago zela, hara non ordu arte gutienik mintzatu zenak jali daukun orotako handiena, diolarik: « Atzo hil da Hazparne Elizaberry Plumainian 29 urteko soldado bat; bulharretarik ahul joana eiki gerlarat, han gaizkiagotarik hunat itzuli eta hemen hil, erran daukutenaz, hogoi-ta bat hauri detarik gazteena.

SEI HAURREN AITAK

Sei haur eta seiatarik goiti bizi dituzten aitak gerlatik etcherat igorri dituzte alderat ez bada behingotz. B ak baino, bortz urthe zaharragoekin bai zi etzutea, izaitekotz ere, deituko, zion ikusi dugun sei haurdun batek.

LAU AITA SEMEAK

Berriki aiphu zen kazetetan aita bat bere lau semeekin soldado zelakoa. *Jofre* aitzindarien buruzagi lehen delakoak jakinik nola zen gizon gaizto hura bere lau semeekin, bera bortzgarren, gerlan aurkitzen, deituko duela bere aitzinera, saristatu soldadoen medelaz eta etcherat igorri.

Galdekatu duelarik, nor zuten utzia etche-zain, ihardetsi dio jeneralari gizonak: « Bi alabarekin emaztea ».

Ama alabek atsegin hartu ahal baitute, nekatokoe aita, emazteak senharra etchean sartzen ikusirik!

Lau semeak oraino soldado geldituz, aski eginik ukanen dute Frantziarentzat. Balitz holako!

BAKE SOLAS

Entzuten diren guziak ez dire sinesteko. Hala nola erraiten badautzute bakea galdatu dutela alemanek, edo eskaini, ez othoi sinets.

Egia nahi baduzue jakin bakoaz, huna: — ez ahanztu hau: Bakea eginen da frantsesak, anglesak, rusoak alemana garhaitu dutenean osoki.

Osoki garhaitu, erran nahi da eho, zampatu, bizkar hezurra hutsirik ezarri ezin chutituzko heinean.

Indarrak dueno alemanak ez dauku bako iraunkorrik emanen.

Hitzemanen ba mentunaz; ez ordean atchikoki hitza. Bortchan behar da ezarri, ezinbertzean.

Beraz galdatzen dautzueteneri, noiz den gerla finituko, ihardets zozute: « Finituko da, etsaiaren ahalak, ahal guziak finituko direnean.

Ez girela oraino hartan, badakigu orok. Hartarat ari girela ere ba. Ba eta goizegi bakteza holakoeekin, ahulez, etan handiena litakela.

Bethi eta bethi berera goazin: edo zoin laneak bere diti despendio, indar, dembora behar du.

Lan izigarri hunk nola ez berea? Diti demborarekin ere, ahalko baita egin, eztea zerbeit?

Zer ez ginuen emanen, erran balaukute haste hartan: « Luze joanen da, bainan segur, azkenean irabaziko dugu »?

Hartan gira. Irabazteaz ez da dudarik. Berantago fini eta esku-gain gehiago gure. Fini goizago, eta baka hauskorrago.

Karraskan lothurik primaderako lathen egun hautan, nahi baginu kraska dadin etsaiaren indar guzia, guk ere behar ginuke gizon hanitz, nahi eta ez, galdit. Igarikiago eta azkarrago goazi; laguntza gaitzak zaizkulakotz heldu bazter guzietarik guri; etsaiari gero eta gutiago.

Dudarik gabe, ahuldut doa: bere buruaren jaten ari da. Gu ez hala, ez gure lagunak.

Jinen da baka. Dadila jin bere tenorean, ez berantegi ez goizegi, gure onetan.

LAPURDI

BAIONA

Asteart goizeko hametak irian gizon langile 60 bat urthea dituzken batek mintzatu da handizki, lur lehertu puska bat eroririk gainera.

Espainiako portaletarik *San Leone*-ko kurutzak chuchen deraman bide berriaren egiten ari baitire han zen langile gaizoa lanean ari, bide zaharretik ezker hogoi bat urhatsetan, lur aitzurran.

Oren laurden bat zuen lagun batzuek errana ziotea gogo eman zezan bide bazterreko lurraren barnegi ziatzeari, gainekoa leher etzakion.

Beldur zirena da gerthatu. Bospasai orga lur osoan jin zazo dokahabea gainera; ahoz behera gizona lurrak aurdikirik dena kukutu du, buruaren itzultzeko artean.

Agorturik berehala begitarteak odolatan, bulharrek hats bahi, hezur hautsirik gabe, bainan sabeletik minez etzaukela, ereman dute *San Leone*-ko ospitalerat.

Altchatean kara ezin hitsagoa zuela baizik eztaikigu geroztikako berriak.

Berri batzu hedatu dire asko eskualdetan bezala hemen ere; baizik eta soldadoek ez dutela, bederen zenbeit egunez izkiriakotz gerla tokietarik; bertalde gobernamentuak hetsiko dituela eskola guziak soldadoentzat eritegi beharrez. Deus ez sinets hor; oro gezurrak dire.

Hilabete hunen ondarra gabe, ageraziko dituzte diru paperak, Biarnoko eta Eskualdun herriko on izanen direnak. Hogoi sosekoetarik ehun mila liberarena; berrogoi eta hamar sosekoetarik berrehun mila liberarena.

Joan den igande, bezperak ondoan su lothu da Espainiako karrikan bi etcheren arte murrari gora, lumero 47 eta 49 lastoa bezala zeramatzala, ohartu ez balire berehala eta ithotzerat ernatu.

Zer uste duzue gar handi oldar gaichtokoa zela betbetan petik gora joaki, chimita bezala jauzirik?

Auzotako gizon, hiri-zain, soldado, karrikan iragaitzen zirenak harache bildurik, batek botiga bazter bateko taula bat itzetarik aizkoraz athera, bertek ura ekhar suaren aldera bere etchetik, bizpahiruk bota zurrastan, gehiagoko pomparik ez pompiarik gabe, hil dute sua, oren laurdentsu batez.

Gazaren tutu edo elektrikaren burdin hari batetarik zen othe lothua su hori? Hil ondoan eta ondoan, eztaikiten chuchen.

Biharumanean da jakin: gaz-bide tutua zela zilo, eta pipari zontbelek zukea, iragaitean, supizteko bat, hil gabe aurdik.

BAIONA SANT-ANDRESEN

Soldado Eskualdunenizat

Eskualdun hanitz badire memento huntan soldado Baionan, beren herrietarik urrun.

Jakinazten diotegu, beren Bazkoen egitarat laguntzeko heintzat bereziki hiru bilkura izanen direla *San Andreseko* elizan, helduden astelehenean, asteartean, eta asteazkenean (Martxaparen 22an, 23an, 24an), arratseko *zapiak eta erdielan*.

Lehenik, arrosorioa eskuaraz, zontbeit kanturekin. Ondotik, predikua eskuaraz Hazparneko Jaun misionen batek eman duena eta gero Sakramendu Saunduaren benedizioa. *Anjelus* eskuaraz.

Ez dugu dudarik soldado Eskualdun guziek aurkitu nahiko dutela bilkura hoi-tan.

Oro fini izanen dire zortziak eta erdietako.

Zitadelan edo Marrak-en diren soldadoak berak joan ahaliko dire beraz bilkura hoi-tarat. Appellok hel ahaliko dire kasernarat.

BOKALE

Bokaieko garan jandarmek arrastaturik gizon gazte bat, kasetek erran zuten soldado aleman bat zela, eta jende sinetsi. Hogoi-ta bi urthetako desertur bat da — ez eskualduna — Espainiarat zoana. Baiona-ko presondegian dago, Espainia-ko treina huts eginik.

HENDAYA

Hendaian, hatzeman dute neska espainola bat liburuño aleman batzu zauzkan soinekoen barnean gordeak. Alemanek Espainia emokatua daukate beren kazeta eta liburuaz gezurra dariotela gure eta angles lagunena kontra.

Dudarik gabe, soberakinak nahi zuten delako espainolak Frantziara hedatu.

Agian emanen dakote hemen bere borondate onaren saria: Martxoko iguzkia saminchkoa baitugu, zenbeit egunen-tzat urririk itzala.

AMIKUZE

Donapaleo-ko jukek joan den buruila-ren hogoi-ta bortezen bortzikieko puniturik baigorriaren hargin bat, hunk galdegin zuen Paue-ko jujeri etzenez merkechago arranjatzen ahal. Azken auzian jaun heik ihardetsi diote gure harginari, gaineratikoez kito uzten dutela; bainan lau hilabetheren egoitza Donapaleo-ko jauregian ez dela khario.

Ziberoan

MONTORY

Montory-tik eskuin Atharratze-rako bidean bada patar bat gaichtoa. Hura beheiti bizikletez zoin lasterrago zozain lau mutiko gazte. Batek, bide itzulan, jo du karrosa bat hain azkarki non airez aire joan baita bazterreko sasirat, mekanika karrosa pean chehakatzan zelarik. Mutikoari laparrekin egin diote minik handiena. Gauza guti.

ALAMANA

Sekulaz geroz Alemana thorpe izan da bere egitate orotan. Aski entzunik gira zer basa ihizia den. Tigriaren asmia eta erraiaik dute; hamatsordei haren aztaparretara erorten denaren.

Odol lehour erazten du gerla hountan, eta ez du saila urhenturik. Orain haatik errabia du handienik; hortzak eta azazkuliak erroteratik jautzen hasirik dute; ez ahal du, gaur goiti, min handirik egin ahal ukhenen; eta sarri beharko du ondo eman egin dutian salbajekeriez.

Beren familietan ere, Alemanak izigarri abre umen dira. Alemanak, ezetik baiala, zourratzen dutie emaztiak. Emazte hezagitiz balitz Uskatz herrian, han hebenka, balio luke benturaz haion Alemaniak igortia zounbait hilabeteren igaraitera.

Frantziako gizalegen arabera, emaztiari etzaio eman behar *lounlorrikorik*; bena Alemanek ez dutie ontsa hartzen Frantziako gizalegiak; haiek dioie deusek ez dila chuchentzen emaztia noula sobaldi batek.

Ez jakin Alemaniako emaztiak ez direnez hanko gizonak uduri: burhoi eta zar. Marimando zenak erranen zian haientako: mala raza!

Jo balez ezalgarberen karkanouak hauts eraz artino, ez lizateke lurreko bizialen damurik.

KABALE GALDU

Alemanian enperadoriaren lehen semia azouria herraturik edo galdurik da hirour hilabete hountan; ihountik ez da agertzen haren berriak. Aitak ezari zian, bere uestez, bazka, gizenetan, Frantziaren, milgora amiñ bat bil zezan gultzurrun gorrier unguru; bena kanouen herotsak latsa erazirik, nouropait baztertu da.

Haren berriak dakianak, hel eraz bitza nahi dutian lekiala. Irabaz biderik ez da: aitak ez du hitzemaite edireilaren saristatzerik.

Hanithen ousteria da Alemaniako printze bere buriaz hartia, Frantziako ospitale zounbaitetan dela kolpaturik eta ttatit, bere izena gordez.

Nota de l'Autorité Militaire

Des agents ennemis établis aux abords de nos frontières s'efforcent de détourner les citoyens de leurs devoirs et de provoquer la désertion. Parmi les mensonges qu'ils ne craignent pas de répandre pour tromper la confiance de leurs victimes, figure l'annonce d'un amnistie générale venant, après la guerre, absoudre les insoumis et les déserteurs.

Il importe de mettre en garde contre de telles promesses ceux que le sentiment du devoir ne suffirait pas à maintenir dans le droit chemin. Que ceux-là sachent, qu'aussi bien pendant les hostilités qu'après la conclusion de la paix, aucun pardon ne sera accordé à ceux qui n'auront pas, au cours de la crise actuelle, accompli leur devoir envers le pays.

A la honte et au remords de leur faute s'ajoutera inexorablement pour eux le juste châtiment que la loi a prévu:

Article 230 du Code de justice militaire. L'insoumission en temps de guerre est punie de 2 à 5 ans de prison.

Article 232. La désertion à l'intérieur en temps de guerre est punie de 2 à 5 ans de travaux publics.

Article 236. La désertion à l'étranger en temps de guerre est punie de 5 à 10 ans de travaux publics.

Signé : Général LEGRAND, Commandant la 18^e Région.

Maisons Recommandées

BAYONNE

BANDAGISTE-COUTELIER : Girai, Lasser, 101, sr. 5, rue Argenterie.
BIJOUTERIE : Articles de religion, Di-harce 3, rue Argenterie.
CHARBONS ANGLAIS : Worms et Cie, armateurs, 8, Allées Bouffées.
CHAUSSEURS : Lorde, 17, rue Port-de-Castels.
CHIRURGIEN-DENTISTE : Iratche, Cantoro, 1, rue Poissonnerie, face aux Halles.
ÉPICERIE EN GROS : Maison Urtean, rue d'Espagne, 10-12. Téléphone N° 143.
GRANDS MAGASINS du PRINTEMPS, rues Port-Neuf et Gambetta.
MEUBLES : Maison Cassiau, 2, Quai Galuperie.
QUINCAILLERIE : A. Souillard, rue Argenterie.
TIMBRES-PRIMES de l'Union Bayonnaise et Régionale à réclamer dans toutes les Epiceries.
TEINTURIER-DEGRAISSEUR : Maison Lague, 4, rue Victor Hugo, Bayonne.
VINS ET SPIRITUEUX : Graciel, rues Sabatier et Vieille Bonchère.

Union Bayonnaise et Régionale

Froskitzue behar dituzuen gauzak zuen adiskideeri eta aspaldi ezagutzen dituzuen botigeseri.

Laguntza bat behar duzuenen bada-kizue norat joan eta zuen da sosa duzuenen joaitea hetara; eta izanen dituzue gauzak non nahi bezain merke, onak, eta bertalde *Timbre*.

TIMBRE CHISTERAK dira denetarik abantailosenak, bainan ez ahanzt ez dila emaiten « au comptant » erosten duteneri baizik.



SALTZALERI

Ez da timbre de l'U. R. B. baino hoberik. Zuen saltzearen konserbatzeko eta hedatzeko, timbre hori duzue merkeena eta primarik ederrenak eta bal osenak emaiten ahal dituen.

Jadanik baioira primak bortz lekutan.

BAIONAN, 20 Espainiako karrikan;
MIARITZEN, 1 abéguerie, epiziera baitan, avenue d's Pyrénées; Lassalle, épiziera baitan rue Chemin de la Pioche;
HASPARNEN, 11 gres, patiziera baitan; **DONBANE-ZIBURUN**, Estouegit baitan, coiffeur, Grand Boulevard;
DONIANE-GARAZIN, Jauru guiberry baitan, Espainiako karrikan;

Balasunak egiten du indarra.

Beraz emazue denek timbre bera eta dembora laburrik barnean ezagutuko du-zue erran horren egia.

Timbres de l'Union Régionale Bayonnaise

Dépôt de Primes à :

RAYONNE, 20, rue d'Espagne.
BIARRITZ, épicerie Labéguerie, avenue des Pyrénées; épicerie Lassalle, rue Chemin de la Pioche.
HASPARNEN, chez M. Ingres, pâtissier, rue Neuve.
ST JEAN-DE-LUZ, Grand boulevard, chez M. Estouegit, coiffeur.
ST-JEAN-PIED-DE-PORT, chez M. Jauréguibère, rue d'Espagne.

AMERIKETARAT

Ameriketarat joan nahi dena, **BARBIER**, Doniane Garazikoari adreza dadila. *Agent d'émigration* bezala ezagutua da Gobernioaz. Itala nola, egun guziez behar baitu bolderat bere komisioentzat, *untziaraino* lagunduko a le laguntza-rikiko diti nausiantak.

HOTEL DES BASQUES & DU BEARN

Etienne ROUDET, 217, cours St-Jean
BORDAUX

Ene etchea garatik hurbil, ehun metretan gurenetik, ongi ezagutua da **AMERIKETARAT** joaiten diren guziez; hemen segur dire izaitez beren harat hunoten egiteko behar dituzten, errechetasun guzirik! Janak eta kamberak merke; jenden ahalaren arabera.

Porcelaines et Cristaux

MAISON FONDÉE EN 1842

Jules LACHIQUE

BAYONNE
GROS - DÉTAIL

Jules MONDRAN

2, place Notre-Dame, BAYONNE

Oihaleria mota guzietarik

OROTAN BAINO MERKEAGO